

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza sailburuaren 160/2019 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Juguko (Zuia) 1. poligonoko 222 lurzatiaren betelana egiteko proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena ematen duena

“Juguko (Zuia) 1. poligonoko 222 lurzatiaren betelana egiteko proiektua” deritzona izapidezkeko, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Erraztuaren prozedura bete behar da.

Prozedura horren testuinguruan, 2019ko otsailaren 5ean Zuiako Udalaren idazki bat sartu zen Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan, aipatutako proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozedura izapidetzen hasteko. Idazkiarekin batera ingurumen agiria erantsi zen, bai eta proiektu teknikoa ere. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2019ko otsailaren 5ean, hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko aldiari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako moduan.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzaren eskariz Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2019ko ekainaren 11n eman duen ingurumen inpaktuaren txostenean ezarritako balorazioa, zehaztapenak eta baldintzak jaso dira foru agindu honetan. Foru agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat datoz 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena:

Proiektuaren bidez Zuiako 1. poligonoko 222 lurzatiaren betelana eta egokitzea egin nahi da. Izan ere, lurzati hori egoera txarrean dago morfologiaren ikuspegitik; hala, lurzoru naturaleko lurrak eta harriak erabilia, gainazal nabarmen horizontalago bat sortuko da eta hobeto aprobetxatu ahal izango da lurzatia, ingurunearen ezaugarriak kontuan izanik.

Lurzatiak 22.383 m²-ko katastro azalera du, eta 29.046,11 m³-ko betelana egin nahi da. Betelanak 18.000 m²-ko azalera izango du eragina, gutxi gorabehera.


Ingurumen agiriak dioenez, lurzatiaren egungo topografia malkartsua eta irregularra da. Izan ere, lur mugimenduak egin dira eremu horretan, obra hondakin geldoak aldi baterako pilatzeko (indusketetatik ekarritako harriak eta lurrak, berdeguneak eta lorategiak egiteko aprobetxatuko diren landare lurrak, etab.) Airetiko irudi honetan, lurzatiaren egungo egoera ikus daiteke:



Proposatzen den betelanaren bidez, gainazal nabarmen horizontalago bat sortuko da. Betelana egiteko, indusketetatik, lur erauzketetatik eta lur mugimenduetatik ekarritako lurak eta harriak erabiliko dira, azaleko geruzan izan ezik (30 cm inguru); hor landare lurra erabiliko da. Hurrengo irudian, airetikoko proiektzioa ikus daiteke:




Hurrengo irudian, luzetarako profilaren proiektzioa ikus daiteke:



1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Proiektuan aurreikusitako betelanaren jarduera eremua Zuiako udalerriko 222 landa lurzatian dago; Juguko ekialdean, herri horretatik Aiurdingo mendateko gainera doan landa bidearen aldamenean.



Proiektuaren eremua nabarmendu da (borobil gorria) Zuiako udalerrian (kolore berdea).

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, bi aukera kontuan hartu eta aztertu dira:

“0” aukera edo ez esku hartzekoa (hautatu ez den aukera): Lurzatiaren egungo morfologia ez aldatzea ekarriko luke (azken 20 urteetan han egin diren lur mugimenduengatik dago egoera horretan). Horren ondorioz, ez litzateke ezer ere egingo 222 lurzattia ingurumenaren aldetik lehengoratzeko.

Aukeratutako “1” aukera: Lurzattia egokitzea proposatzen da, leku batzuetan lur erauzketak eginez eta pilatutako zenbait material kenduz; ondoren, inguru hori bete egingo da, indusketetatik, lur erauzketetatik eta lur mugimenduetatik ateratako lurrez eta harriz, azaleko geruza salbuetsita. Geruza horrek 30 cm izango ditu gutxi gorabehera, eta hor landare lurra botako da. Horri esker, lursailaren ahalmen agrologikoa leheneratuko da, azken xedea baita belarra ereinda eremu hori ganaduarentzako bazkaleku bihurtzea, inguruko lursailak bezala.

Ingurumen agiriak dioenez, “1” aukera hautatu da, honako alderdi hauek kontuan izanda:

- Lurzattian azken urteotan egin den jarduera kontrolatzea eta arautzea.
- Lursailaren ahalmen agrologikoa leheneratzea, aurretik zituen ezaugarriak berreskura ditzan eta dagoen ingurunera egokitu dadin.
- Lursailaren paisaia leheneratzea, eta konektibitate ekologikorako neurriak ezartzea, aurreikusitako erabilera agrologikoekin bateragarria den leheneratze programa baten arabera.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki Talde Ekologista	
Hontza	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Birdlife	
Zuiako Udala	
Juguko Administrazio Batzarra	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/85 espedientean eta www.araba.eus webgunean dago):

- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak txostena egin du, zeinean hau adierazten baitu: “egin nahi den betelana onura publikoko 740 zenbakiko mendiaren (“Arrato eta Leube”) ondoan dago; mendi hori Juguko Administrazio Batzarrarena da, eta mugarrituta dago”. Txostenak hau zehazten du: “leku berean lehendik ere lurrak pilatu izan dira, eta ez dirudi horrek kalterik eragin duenik mendi publikoan”. Azkenik, hau ondorioztatzen du: “beraz, Mendi Zerbitzuak ez dio eragozpenik jarriko betelanaren proiektuari”.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak hau jakinarazi du bere txostenean: “dokumentazioa aztertuta, jakinarazten dizugu plan horren eremuan ez dela eraginik sumatzen kultura ondarean”.

- URA – Uraren Agentziak bi txosten egin ditu. Lehenengo txostena 2019ko otsailaren 27an eman du. Han, honako hau adierazten du: “zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman dezan, komenigarritzat jotzen badu, 21/2013 Legeak ezarritakoaren konforme (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioarena)”

Bigarren txostenean (2019ko martxoaren 27ko sarrera data du), proiektuan jasotako jarduera nagusiak laburbildu ondoren, hau ondorioztatzen du: “betelanaren proiektuaren ingurumen ebaluazioa izapidetzearen ondorioetarako, Agentzia honek ez du ikusten uren gaietan eraginik izan dezakeen alderdirik eta, beraz, ez du egingo bere eskumenen esparruan kontuan izan beharreko oharririk, ingurumen agiri estrategikoan jasota daudenez gain”

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak, proiektuaren proposamenaren laburpena egin ondoren, adierazi du proiektuan ez dela ageri betelanaren denbora kronogramarik, zeinak erakutsi behar baitu betelanaren faseak nola gauzatuko diren; eta hori hutsune handia dela, eragina duelako ingurunea leheneratzeko jar daitezkeen epeetan. Jarraian, proiektuak Natura Ondarean duen eragina aztertu du.

Lehenik eta behin, proiektuan jasotako birlandaketei dagokienez, hau jakinarazi du: “Zuzendaritza honen iritziz, proposamena ez da nahikoa, birlandaketetan zuhaixkak bakarrik aurreikusten direlako, lerroka landatu nahi direlako eta, batez ere, betelanak ukitutako lurzatiaren oso zati txiki batean jarri nahi direlako”. Ildo horretatik, Zuzendaritzak eskatu du birlandaketak egitea betelanaren 3:1 ezpondetan, gutxienez, eta, horrekin batera, proposatu du zuhaixkez gain zuhaitzak ere jartzea eta eredu linealari jarraitu beharrean zuhaitz eta zuhaixken multzoak landatzea.

Bigarrenik, jarduera protokolo bat ezartzeko ere eskatu du, obrak amaitu ondoren betelanaren eremuan ager daitezkeen espezie inbaditzaileei aurre egiteko.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, proiektuan jasotako jarduera nagusien laburpena egin ondoren, bi ohar egin ditu:

- Arabako Lurralde Historikoko Landa Bideen Erregistroan erregistratutako bi bide daude (063-156-103 eta 063-156-2), eta, beraz, “bide horiei eragin diezaiekeen edozein esku hartze egin aurretik, txosten teknikoak eskatu beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari”

- Betelana egingo den lurzattia “Trantsizio Landa Paisaia” eta “Ingurumen Hobekuntza” gisa dago katalogatuta EAEko Nekazaritzako eta Basozaintzako Lurralde Planean, eta, neurri txikiagoan, “Basoa-mendi barbana” kalifikazioa du. Kontuan izanik lurzatiaren egungo egoera eta proiektuaren azken xedea (eremu horren ahalmen agrologikoa leheneratzea), “proiektuari aldeko txostena eman zaio”

- IHOBE Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak adierazi du proiektuaren esparruan ez dagoela “Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak edo instalakuntzak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan” jasotako eremurik. Hala ere, adierazi denez, inbentariatu gabeko eremuren bat baldin badago eta lurzorua kutsatu ahal izan duen jardueraren bat egin baldin bada bertan, eraginak inbentariatutako eremuentzako ezarritako berdina dira, eta kutsadura zantzuak baldin badaude horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak hau dio bere txostenean: “espedientea aztertuta ikusi da ingurumen izapidetzerako proposatu den proiektuak ez diela eragiten euren balio historiko eta kulturalagatik babestutako elementu ez higieziinei eta, beraz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspuntutik, ez dago eragozpenik hura izapidetzeko”

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Gure ustez, proiektua egitean sor litezkeen ingurumen inpakturik garrantzitsuenak lurzoruen geomorfologian nahiz kalitatean eta paisaian gerta litezke; bai eta landare autoktonoetan ere (lurzatian espezie exotiko inbaditzaileak hazten badira, hainbat tokitatik lurrak eta material geldoak

ekartzeagatik). Uste dugu ingurumen kalitatearen beste elementu edo eremu batzuetan gerta litezkeen beste inpaktu batzuk txikiagoak lirатеkeela eta, nolana ere, bateragarriak lirатеkeela haren kontserbazioarekin, jarduerak proiektuan proposatutako baldintzetan burutzen badira.

Betelana egitean, luraren morfologia eta topografia aldatu egingo dira. Era berean, betelanak eragina izango du paisaian, eta modu nabarmenean gainera. Izan ere, 222 lurzatia ez dago sartuta Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Bikain eta Apartekoan Katalogoan, baina 50 metrora baino ez dago 10 zenbakiaz katalogatutako "Oroko haitzak" deritzon paisaia bikainetik, eta 350 metrora baino ez dago 46 zenbakiaz katalogatutako "Arratoko mendilerroa" deritzon paisaia bikainetik. Gainera, lurzatia oso gertu dago N-622 errepidetik (200 metrora), eta, beraz, errepide horretatik doan jende askok ikusi ahal izango du. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da zein den abiapuntuko egoera: azken urteotan lur mugimenduak egin dira lurzati horretan, hara eraman baitira, aldi baterako, obra hondakin geldoak (indusketetatik ateratako harriak eta lurrak) eta landare lurrak. Hortaz, betelana lagungarria izango litzateke, behar bezala gauzatu gero, lurzatia bere hurbileko ingurunean hobeto integratzeko morfologiaren eta paisaiaren aldetik, aurretik egin diren betelanen ondorioz nahiko narriatuta baitago. Ildo horretatik, oso garrantzitsua da betelana proiektuan azaltzen den moduan egitea; hala, gainazal nabarmen horizontalago bat sortuko da, inguruko lurren morfologiarekin bat datorrena.

Proiektuan proposatutako birlanaketei dagokienez, ingurumen agirian jasotako planteamendu batzuk ez dira nahikoak. Izan ere, betelana paisaian ongi integratu dadin, askoz handiagoak izan behar dute birlanaketa lanek. Proposamena hobetu daitekeela uste dugu, bi arrazoi hauengatik:

1. Kontuan izanda betelanak gutxi gorabehera 18.000 m² hartuko dituela, ez da inondik ere nahikoa eskuzko ereitea soilik 1.500 m²-tan egitea.

2. Zuhaixka autoktonoak lerroka landatzeko proposamena hobetzeko modukoa da. Izan ere, landaketetan "eredu lineala" saihestea komeni da, eta haren ordeztan landaredia unadak sortzea. Zuhaixkak ez ezik, zuhaitzak ere sartu beharko lirатеke unada horietan. Bestalde, zuhaitz eta zuhaixka gehiago landatu behar dira: proposatzen diren 50 aleen ordeztan, gutxienez 100 jarri beharko lirатеke. Gainera, lehentasuna eman behar zaie betelana egitean sortzen diren ezpondei, nola lurzatiaren ekialdeko mugan hala mendebaldekoan, luraren egonkortasuna bermatzeko eta eremua paisaian integratzeko dela ziurtatzeko.

Horrez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu espezie exotiko inbaditzaileen zabalkundea eragoztekoa. Proiektuaren izaera eta tipologia aintzat hartuta, ingurumen jarraipenak garrantzi berezia du. Hain zuzen ere, hainbat tokitatik lurrak hartu eta 222 lurzati eramatearen ondorioz, zenbait espezie exotiko inbaditzaile hedatu egin daitezke. Ingurumen agiriko babes neurrien artean jasota dago, berez, betelana egiteko erabiliko diren lurrak kontrolatzea. Hala ere, ingurumen agirian proposatzen den Ingurumen Jarraipenerako Planaren osagarri gisa, espezie exotiko inbaditzaileen kontrol espezifiko egin beharko da, harik eta betelana guztiz amaitu arte. Horrez gain, jarduera protokolo bat ezarri beharko da, betelana egin osteko bi urteetan, gutxienez, horrelako espezieren bat agertuko balitz ere.

Proiektuak inguruneke beste elementu batzuei ere eragin liezaieke. Konektibitate ekologikoari dagokionez, lurzatia igarobide ekologiko deklaraturik dago Arabako Foru Aldundiaren Ekologia eta Paisaia Konektibitatearen Estrategian. Proiektuan jasotzen diren betelanak, eta, batez ere, birlanketen bidezko leheneratze lanak, positibotzat jotzen dira konektibitate ekologikoaren ikuspegitik. Lurzoruaren kalitateari dagokionez, proiektua onuragarria izango dela uste dugu, kontuan izanda gainazaleko geruza, 30 cm ingurukoa, landare lurrez beteko dela eta lur horren ahalmen agrologikoa leheneratu nahi dela. Betelana gauzatzeko faseak eragin kaltegarria izango du faunarengan edo ingurune atmosferikoan. Hala ere, kalte horiek onargarriak izango lirатеke, ingurumen agirian jasotako ingurumenean integratzeko neurriak hartuz gero.

Azkenik, Natura 2000 sareko espazioen gaineko balizko eraginari dagokionez, betelanaren proiektuak ez du eraginik, ez zuzenean ez zeharka, Natura 2000 sareko naturagune babestuetan. Izan ere, lurzattia 2,2 km-ra dago kontserbazio bereziko eremurik hurbilenetik ("Gorbeia ES2110009"), eta proiektuak, bere tipologia dela-eta, ez du inongo kalterik eragingo leku horretan.

4. Babes eta zuzenketa neurriak

Ingurumen agiriaren V. kapituluaren aipatu dira proiektua ingurumenean txertatzeko zenbait prebentzio eta zuzenketa neurri, zeinak zuzentzat jo ditugun, oro har. Beraz, egokia da haiek ezartzea, agiri horretan azaldukoarekin bat etorritik. Hona laburbilduta integratzeko neurri horien edukia:

- Jardunbide egoki orokorrak.
- Babes neurri orokorrak:
 - Lurzoruak eta sare hidrografikoa babesteko neurriak.
 - Landaretza babesteko neurriak.
 - Airearen kutsadura prebenitzeko neurriak.
 - Zaratek eta dardarek sortutako ondorioak gutxiagotzeko neurriak.
 - Hondakinak kudeatzeko neurriak.
 - Paisaia leheneratzeko eta integratzeko neurriak.
- Berariazko babes eta zuzenketa neurriak:
 - Obraren eraginari lotutako neurriak.
 - Betelanaren materialari lotutako neurriak.
 - Lurzoruari eta landare lurriari lotutako neurriak.
 - Paisaia leheneratu eta integratzeari lotutako neurriak.

Halaber, ingurumen agiriaren VI. kapituluaren ingurumen jarraipenerako programa bat sartu da, adierazleak eta programazioa bildu dituen. Alderdi horiek gauzatu egin beharko dira.

Gure ustez, neurri osagarri batzuk hartu behar dira, eraginpeko eremuan ingurumen ondorio negatiborik izan ez dadin edo ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezen. Hona hemen:

A) Betelanak hasi baino lehen, sustatzaileak Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari abisatuko dio, lanen ingurumen jarraipen egokia egin ahal izateko.

B) Landaketak egingo dira, zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak erabiliz. Birlandaketak egingo dira, gutxienez, betelanen ondorioz sortzen diren ezpondetan, nola lurzatiaren ekialdeko muga hala mendebaldekoan, lurriaren egonkortasuna bermatzeko eta eremua paisaian integratzeko dela ziurtatzeko. Gutxienez, zuhaitz eta zuhaixken 100 ale landatuko dira, eta ez da erabiliko "eredu lineal" deritzona. Ahal den neurrian, landaredia unadak sortuko dira, inguruko paisaian hobeto integratzen baitira.

Eskuzko hidroereitea betelanaren eremu osoan egingo da (18.000 m²), ez bakarrik ingurumen agirian jasotako azalera (1.500 m²). Bestalde, zuhaitzak eta zuhaixkak landatuko diren ezpondetan eta haien inguruan lan hauek egin beharko dira:

- Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guzuetan behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.
- Kalitate oneko landare lur geruza bat ematea, gutxienez 0,3 m-koa, eta ondoren profilatzea.
- Lurra landu eta harrotzeko eta ondoren xehatzeko lanak egitea, gainazalak ereiteko eta hidroereiteko egoki prestatzeko.

– Belar estalkia ezartzea ereite edo hidroereite bidez, betelanaren eraginpeko eremu osoan (18.000 m²). Horretarako zopizar espezieak erabiliko dira, gramineoen eta lekadunen nahaste bat, eragina jaso dezakeen eremuko baldintza klimatiko eta edafikoetarako egokia.

– Landaketak egitea, batez ere betelanaren ekialdeko eta mendebaldeko ezpondetan, egindako lanak paisaian integratu daitezten.

Hauiek izango dira jarduera eremuetan egingo diren landaketen ezaugarriak, ingurumena leheneratu eta paisaian integratzeko neurri gisa:

– Zuhaitz espezieak:

6-8 zentimetroko diametroa duten zuhaitzak. 3 eta 4 metro arteko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxieneko dimentsioak: 0,6x0,6x0,8m:

– *Quercus robur*.

– *Quercus pirenaica*.

– *Acer campestre*.

– *Fraxinus angustifolia*.

– Zuhaixka espezieak:

1 metro garai diren zuhaixkak. 1,5 eta 2 metro arteko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxieneko dimentsioak:0,4x0,4x0,4m.

– *Crataegus monogyna*.

– *Prunus spinosa*.

– *Viburnum lantana*.

– *Ligustrum vulgare*.

– *Cornus sanguinea*.

– *Fragula alnus*.

Landareak sartutakoan, zuloa edo zanga bete egingo da, kalitate oneko landare hondoa lehen ekarpena eginez, behar bezala trinkotutako geruzetan, 20 cm-z 20 cm; hareazko edo legarrezko 1/3kin zuzenduta egongo da iragazkortasuna areagotzeko, kilo bat ongari organiko konpostatu gehituz.

Zuloa kalitatezko lurrarekin bete ondoren, gainazalean txorko bat egingo da; erradioan 40 cm izango ditu eta ildo bitartearen altuera 10 cm-koa izango da, eta 50/1 landareko ureztatzea egingo da.

Oso gomendagarria da landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarritzko babes bat jartzea, "Horsol" motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m², 1 metroko zabalera osokoa, 20 cm lur azpian jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko, bistan 0,6 m utzita.

Landatzeko garaia: abendua-otsaila.

Bermatu egin beharko da zurezko landare estalkian mantentze lanak egingo direla hasierako ezarpenaldian, behin betiko sustraitu eta ezarriko dela ziurtatzeko. Hemen kontuan hartzekoak: defizit hidrikoa den garaietan ureztatzea, landare hilak ordezteak, zurkaitzak eta oinarriko babesak ordezteak, ongarriztatzea, eraketa inausketak, sasi garbiketak eta abar.

C) Baldin eta 222 lurzatian landare lurra pilatzen bada, betelanaren eremu osoan 30 cm-ko lodiera duen gainazaleko azken geruza gisa banatu eta zabaltzeko, ingurumen agirian dioen bezala, gehienez 3 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egingo da pilaketa, lurra trinkotu ez dadin.

D) 222 lurzatiaren betelana egiteko erabilitako lurretan espezie exotiko inbaditzaileen kontrola egiteaz gain, ingurumen agiriak berak dioenez, Ingurumen Jarraipenerako Planaren barruan espezie exotiko inbaditzaileen kontrol espezifikoa egin beharko da, harik eta betelana guztiz amaitu arte. Horrez gain, jarduera protokolo bat ezarri beharko da, betelana egin osteko bi urteetan, gutxienez, horrelako espezieren bat agertuko balitz ere.

Horrenbestez, 52/1992 Foru Arauak, abenduaren 18koak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege erregimenari buruzkoak, 40. artikuluan ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

XEDATU DUT

Lehenengoa. "Juguko (Zuia) 1. poligonoko 222 lurzatiaren betelana egiteko proiektua" deritzonaren ingurumen inpaktuaren txostena ematea.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN